



GIPUZKOA



ETA EUROPAR BATASUNA

103. INFORMAZIO BULETINA

> 2015ko Iraila



GIPUZKOA



NABARMENDU BEHARREKOA

> Batzordeak Euskadiko EGIFen Programa Operatiboa onartu du 2014-2020 aldirako

Europako Batzordeak abuztuaren amaieran onartu zuen Europako Gizarte Funtsaren (EGIF) Euskadiko Programa Operatiboa 2014-2020 aldirako.

107,6 milioi euroko zenbatekoa du eta horietatik 54 milioi Europar Batasunak emango ditu. Programaren helburua lan-merkatuko partaidetza hobetzea (autoenpleguaren sustapena barne), enplegu-kalitatea hobetzea eta ezintasuna dutenen eta langabezian daudenen (iraupen luzekoak barne) lan-munduratzearraztea da. Era berean, lan-merkatutik aldenduen dauden pertsonak (degaitasuna dutenak eta txirotasuneko edo gizarte-bazterkeriako arriskuan daudenak) enplegurako duten sarbidea hobetzeko eta diskriminazio mota orori aurre egiteko ekimenak aurrez ikusten ditu.

Zehazki, Euskadiko 2014-2020 EGIF Programa Operatiboan aurrez ikusitako inbertsioen lehentasunak honako hauek dira: aurrekontuaren % 57 enplegua eta lan-mugigarritasuna sendotzera bideratuko da; % 37 gizarteratzea bultzatzera eta txirotasunari eta edozein diskriminazio motari aurre egitera; % 3,3 berrikuntza sozialeko neurrietara; eta gainerako % 2,7 laguntza teknikora.

Informazio gehiago:

<http://www.lanbide.euskadi.eus/fondo-social-europeo/-/informacion/fse-documentacion/>



> Donostiak zuzenduko du Europar Batasuneko 29 milioi euroko zenbatekoa duen “REPLICATE” proiektua

Donostiako Udala izango da REPLICATE (“*Renaissance of Places with Innovative Citizenship and Technology*”) proiektuaren buru. REPLICATE proiektuaren helburu nagusia hiri iraunkorren negozio-eredua eraikitzea da hiri adimentsurako trantsizioa bultzatu ahal izateko. Horrela, energia mailako baliabideak eta eragingarritasuna areagotzeko, hiri-garraioaren iraunkortasuna hobetzeko eta hiriko eremuetako igorpenak gutxitzeko teknologia berritzaileak, antolaketakoak eta irtenbide ekonomikoak hedatzeko prozesua bizkortu ahal izango da.

REPLICATE Europar Batasuneko Horizonte2020 Programako Itsasargiak Proiektuen (*Lighthouse Projects*) deialdiaren baitan onartutako proiektua da. 36 bazkideren partaidetza eta 29 milioi euroko aurrekontua du.

Proiektu horri esker, Donostiak, Bristolekin eta Florentziarekin batera, hiri adimentsuaren eredua garatzen hartuko du parte da gai hauekin lotuta: energia-eragingarritasuna, mugigarritasun iraunkorra eta IKTak/azpiegiturak.

Hiru hiri horietan “itsasargi proiektuak” jarriko dituzte abian eta Europako beste hiru hiritan errepikatuko dituzten esperientzia pilotuak egingo dituzte: Essen (Alemania), Lausana (Suitza) eta Nilüfer (Turkia). Esperientzia horien baitan, eraikinak birgaitzeko ekintzak, mugigarritasun elektrikoa, IKTak, energia berrizgarriak eta sare elektriko adimentsuak biltzea aurrez ikusi dute.

Informazio gehiago:

www.donostia.eus



KOHESIO-POLITIKA

> Akitania-Euskadi diru-laguntzen bigarren deialdiak Osasuna, Elikagaien industria, Energia berriztagarriak eta Itsasoko baliabideekin erlazionatutako proiektuak lagunduko ditu

Akitania-Euskadi diru-laguntzen deialdiaren xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko eta Akitaniako eskualdeko bazkideen artean gizarte eta ekonomia eragileen lankidetzak ekintzak sustatzea, proiektu komunak egin daitezzen.

Akitania-Euskadi LLET-k diru-laguntza deialdi honekin euroeskualdeko ekonomiarentzako funtsezkoak diren sektoreen sorreran parte hartu nahi du, erreferentziazko eragileak (hau da, unibertsitateak, enpresak...) "lankidetzak estrategikoetan" elkartuz.

"Lankidetzak estrategiko" hauek proiektu nagusi baten (ikerketa-proiektua, berrikuntza-proiektua, nazioartekotze-proiektua, Europako proiektuetarako deialdiak prestatzeko proiektua..) eta animazio-programa baten (eragileak sarean jartzea, topaketak, B2B...) inguruan garatuko dira. Proiektu eta programa horiek euroeskualdeko sinergiak eta dinamika berriak sortzeko dira.

Bigarren deialdi honek honako funtsezko eta lehentasunezko sektore hauek hartuko ditu eraginpean:

- Osasuna/Biosasuna
- Nekazaritza eta nekazaritzako elikagaien industria
- Energia berriztagarriak
- Itsasoko eta itsasertzeko baliabideak

Deialdiak 200.000 euroko aurrekontua dauka.

Proposamenak aurkezteko epea 2015eko urriaren 30ean amaitzen da..

Informazio gehiago:

<http://www.aquitaine-euskadi.eu/>



> SUDOE 2014-2020ren 2015eko deialdia argitaratu da

Irailaren 21ean ireki dute Europako Hego-mendebaleko Espazioko Lurraldeen arteko Lankidetzarako Programa berriaren (SUDOE 2014-2020) lehen deialdia.

Europako Hego-mendebaleko Espazioko Lurraldeen arteko Lankidetzarako Programak (SUDOE) Espainiako, Frantziako, Portugalgo eta Gibraltarreko (Erresuma Batua) eskualdeen eskualde mailako garapena babesten du EGEFen bidez nazioz gaindiko proiektuak elkarrekin finantzatuta.

Programaren helburua Europako hego-mendebaldeko espazioaren hazkundera eta garapen iraunkorra lortzen laguntzea da. Horretarako, nazioz gaindiko lankidetzarako proiektuak garatzen dituzte gai hauen inguruan: berrikuntza, ingurumena, informazioaren teknologia berriak eta hiri-garapen iraunkorra.

SUDOE Programaren 2015eko deialdia erakunde publiko eta pribatuei irekita dago. Erakunde publikoek edo baliokideek % 75eko EGEF laguntza jasoko dute. Aldiz, pribatuek % 50eko EGEF laguntza jasoko dute eta ezingo dute onuradun nagusiak izan.

Hautagaitzek azaroaren 6ra arteko epea izango dute proiektu-proposamenak bidaltzeko.

Era berean, SUDOE Programa ezagutarazteko mintegia egingo dutela iragarri dute. Ekimena Santanderren egingo dute 2015eko urriaren 7 eta 8an, eta horren helburua onartutako Programa eta 2015eko deialdia aurkeztea izango da.

Informazio gehiago:

<http://4.interreg-sudoe.eu/ESP>



> Europako Batzordearen kontsulta publikoa mugaz bestaldeko lankidetzarako dauden oztopoen inguruan

Irailaren 18an Europako Lankidetzeta Eguna zela eta, Europako Batzordeak mugaz bestaldeko lankidetzarako oraindik ere dauden oztopoei buruzko kontsulta publikoa jarri du abian.

Kontsulta publiko horren bidez, Batzordeak eskualde mugakideetan bizi diren EBko herritarren iritzia ebaluatu nahi du eguneroko bizitzan topatzen dituzten oztopoak zein diren jakiteko eta horiek gainditzeko moduei buruzko iradokizunak jasotzeko.

Crețu komisarioak iragarri duenez, agintaldi honetan, Batzordearen helburua oraindik konpondu gabe dauden mugaz bestaldeko arazoak gainditzeko proposamen zehatzak aurkeztea da. Horretarako, egunero oztopo horiei aurre egin behar dieten herritarren ekarpena behar da.

Testuinguru horren baitan, hurrengo hilabeteotan, Batzordeko funtzionarioek Europa osoko hamaika eremu mugakide bisitatuko dituzte herritarrekin eta ordezkariekin bildu eta jardunbide egokienak aztertu ahal izateko.

Informazio gehiago:

<https://ec.europa.eu/eusurvey/runner/aa60bc4c-93f3-45b0-be65-c317bcf0ff59?draftid=53101ac5-f7a3-4b2c-817f-020c16c17af0&surveylanguage=ES&serverEnv=>



> Batzordeak 6.600 milioi euro bideratuko ditu 2014-2020 aldian mugaz bestaldeko eskualdeetarako

2014-2020 aldian, 10.000 milioi euro baino gehiagoko inbertsioa egingo da eskualdeen arteko lankidetzan. Zenbateko horretatik, 6.600 milioi euro, gutxi gorabehera, mugaz haraindiko eskualdeetara bideratuko da.

Izan ere, Batasuneko herritarren herena baino gehiago bizi da Europako eskualde mugakideetan eta muga horiek beren bizimoduetan eragin zuzena eta zeharkakoa izaten dute. Dena den, oraindik ere eremu mugakideetan ustiatu gabeko potentzial ekonomiko handia dago mesfidantzak edo ondoko herrialdeen arteko jarrera negatiboak direla eta.

Errealitate hori dela eta, Europako Batzordearen DG Regiok eremu mugakideetan bizi diren herritarren jarrerak identifikatzea eta zehaztea xede duen Eurobarometroko lehen inkesta egin du. Hauek dira emaitza nagusiak:

- Mugaz haraindiko eskualdeetan bizi diren pertsonen herenak (% 31) ezagutzen ditu EBk beren eskualdean finantzaturako mugaz bestaldeko lankidetzako jarduerak.
- Gutxi gorabehera, inkestari erantzundako lautik hiruk (% 76) bidaiatu du ondoko herrialdera. Europako iparraldeko eta erdialdeko herrialdeetako eskualdeetan bizi eta inkestari erantzun diotenak dira atzerrira bidaiatzeko probabilitate gehien dutenak. Inkestari erantzundakoen gehienek herrialde laguntzaileetara aisialdia dela eta bidaiatzen dute (turismoa aipatu du % 57k). Herenak baino gehiagok (% 35) produktu edo zerbitzuak erosteko bidaiatzen duela aipatu du. % 14k bakarrik bidaiatzen du lan-arrazoiak edo negozioak direla eta.
- Herenak baino gehiagok (% 37) uste du eskualde mugakidean bizitzeak aukerak eskaintzen dituela; % 4k bakarrik aipatu du oztopoa dela. Inkestari erantzundakoen erdiak (% 55) aipatu du herrialde laguntzaile baten mugatik gertu bizitzeak ez diola inola ere eragiten.
- Inkestari erantzundakoen erdiak (% 57), gutxienez, uste du hizkuntza mailako aldeak arazoa direla mugaz bestaldeko lankidetzarako.
- Hamar lagunetik lauk baino gehiagok aipatu ditu arazo horien artean alde sozioekonomikoak, legezkoak eta administrazio arlokoak, eta hamarretik gutxienez hiruk kultura mailako aldeak edo irisgarritasuna.

Informazio gehiago:

<http://ec.europa.eu/COMMFrontOffice/PublicOpinion/index.cfm/ResultDoc/download/DocumentKy/67980>



EUROPA 2020 ESTRATEGIA

> EHUko “Enpresa berritzaileak sortzen” programa finalista izango da 2015eko Enpresa Sustapenerako Europako Sarietan

“Enpresa berritzaileak sortzen Euskal Herriko Unibertsitatean” kultura ekintzailearen inguruko prestakuntza-programa hautatu dute 2015eko Enpresa Sustapenerako Europako Sarietan Europako finalean parte hartzeko enpresa-ekimenak sustatzeko kategoriaren barruan. Programa EHUko unibertsitate-komunitate osoari zuzenduta dago (50.000 lagunek baino gehiagok osatzen du).

Proiektuak hiru foru-aldundien lankidetzaz jaso du eta helburu nagusia enpresa-proiektu berritzaileak eta oinarri teknologikoa dutenak sortzea da. Lau fasetan egituratuta dago: hedapenetik hasi eta sortutako enpresei aholkularitza eskaintzeraino. Programaren hasierak unibertsitateko ikasleen artean kultura ekintzailea bultzatzeko jolasa eta prestakuntza uztartzen dituzten jarduerak jasotzen ditu. Ondoren, ekintzaile bihurtzeko ikastaro espezifikoak eskainiko dituzte, jarraian enpresa-proiektua garatu behar dutenei laguntza indibidualizatua emateko. Amaitzeko, enpresa berriei aholkularitza eta babes eskainiko diete lehen urteetan.

EHUko proiektuak Europar Batasuneko kide diren estatu guztiek aurkeztutako proposamenekin lehiatuko du. Sariak Luxemburgan banatuko dituzte azaroaren erdialdean.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/growth/smes/support/enterprise-promotion-awards/index_en.htm

http://www.ehu.es/es/preview/-/journal_content/56/10136/4246906/1324421



> Batzordeak Kapital Merkatuen Batasunerantz aurrera egin du

Europako Batzordeak duela gutxi jarri du abian Kapital Merkatuen Batasuneko (KMB) ekintza-plana. Horren helburua EBko kide diren 28 estatuen artean kapitalen benetako merkatu bakarra ezartzen laguntzea da.

Kapital Merkatuen Batasunaren ideia EBko oinarrietako batekin lotuta dago: merkatu bakarra. Horrek pertsonak, merkantzien eta kapitalen zirkulazio askea jasotzen du. Europako Batzordeak azken alderdi hori sakondu nahi du EBko enpresek beren proiektuak finantzatzeko eskaintza zabala topa dezaten eta aurreztaileek beren dirua inbertitzeko modu osagarriak izan ditzaten. Horri guztiari esker, hazkunde ekonomikoa eta enplegu-sorkuntza bultzatuko lirateke.

Kapital Merkatuen Batasuna da Juncker Planaren oinarrietako bat. Horren helburuak EB osoan enplegua, hazkunde eta inbertsioa bultzatzea dira.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/finance/capital-markets-union/index_en.htm#action-plan



DOKUMENTU INTERESGARRIAK

> **Powering the Energy Union (Panorama aldizkaria, 54. alea)**

“Panorama” aldizkariaren udazkeneko edizioan landutako gai nagusia eskualdeko politikak, karbono baxuko ekonomian egindako inbertsioak eta energia iraunkorreko proiektuak ugarituta, EBko energia-helburuak betetzen egiten duen ekarpena da.

Aleak Greziako ekonomia suspertzeko egitura-funtsek eta inbertsioak egindako ekarpenari buruzko artikulua ere jasotzen du. Gainera, RegioStars sarien finalistak aurkezteko atala ere badu.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/regional_policy/sources/docgener/panorama/pdf/mag54/mag54_en.pdf

> **Hitzaldia: immigrazioaren eragin ekonomikoak: horren potentziala aprobetxatuz (Euskadiko ordezkariak EBrako egindako txostena)**

2015eko irailaren 14an, Ipar Renaniako-Westfaliako Alemaniako eskualdeko Europako bulegoak adituen hitzaldia antolatu zuen Bruselan. Ekimenaren helburua immigrazioak biltzen dituen erronka ekonomikoen inguruko eztabaida bultzatzea zen eta, zehazki, etorkinek ekonomian eta gizartean ekarpen positiboa nola egin dezaketen lantzea. Horrez gain, immigrazioaren fenomenoak zerga-sarreretan eta gastu publikoan zer eragin duten eztabaidatu zuten.

Europar Batasunerako Euskadiko ordezkariak hitzaldi horretako ondorio nagusien laburpena argitaratu du.

Informazio gehiago:

https://www.euskadi.eus/contenidos/informe_estudio/inf_impactosinmigracion/es_def/adjuntos/6.%20INFORME%20CONFERENCE%20IMPACTOECO%20INMIGRACION%20EMPLEO%2014092015.pdf



EUROPAKO DEIALDIAK

Jarraian, Gipuzkoatik interesgarriak izan daitezkeen eta azken hilabeteen argitaratutako deialdi nagusiei egindako erreferentziak biltzen dira. Deialdiak aukeratzeko orduan, irizpide gisa hartu dira horien gaia, hautagaitzak aurkezteko epea, egokitasuna eta hautagaiak izan daitezkeen eragileen aukeragarritasuna.

- **POCTEP-2014-2020 (Espainia-Portugal) programako proiektuen lehen deialdia**
- **SUDOE 2014-2020 (Europako hego-mendebaldea) Programaren 2015eko deialdia**
- **POCTEFA 2014-2020 (Espainia-Frantzia-Andorra) Programaren 2015eko deialdia**
- **Akitania-Euskadi laguntza-programaren 2. deialdia**
- **Telebista-saioak garatzen laguntzeko proposamenen deialdia - EACEA 21/2015 (MEDIA azpiprograma)**
- **Zinema arloko banakako proiektuak garatzeko proposamenen deialdia - EACEA 18/2015 (MEDIA azpiprograma)**